



**NAFARROAKO HEZKUNTZA SISTEMAN
BERANDU SARTZEN DIREN IKASLE
ATZERRITARREI ZUZENDUTAKO INFORMAZIO
GIDALIBURUA**



**Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua**

Departamento de Educación
Hezkuntza Departamentua

Enero 2007

Servicio de Atención a la Diversidad, Multiculturalidad e Inmigración
Sección de Multiculturalidad e Inmigración

Aurkezpena

Hezkuntza sisteman berandu sartzen diren ikasle atzerritarrei, nagusiki, zuzendutako informazio gidaliburu honen helburua da Nafarroara etortzen diren eta eskolara joateko adinean dauden seme-alabak dituzten familiei aholkatzea, gure komunitateak eskaintzen dizkien hezkuntza eta eskolatze aukera guztiak ezagutu ditzaten. Horrekin batera, ikastetxeei eta eskolatze batzordeei lagundu nahi die, horiek garatzen dituzten eskolatze eta aholkularitza zereginak errazte aldera.

Honako informazio hau ematen du: ikasleak onartzeko prozedura; hezkuntza ereduaren egitura, irakaskuntza mailen arabera; ikastetxeek eskaintzen dituzten hezkuntza sistema osagarriak; ikastetxeek eskura dituzten organoak, gurasoek eta ikasleek parte hartzeko; eta horiek hezkuntza komunitatearen barruan dituzten eskubideak eta betebeharrak.

Ikastetxeek informazio hori osatu behar dute. Horretarako, datu zehatzagoak eman behar dituzte hezkuntza proiektuari, eskaintza akademikoari eta haien bizikidetzara araei buruz.

Gure asmoa da informazio gidaliburu hau benetako aukera berdintasuna lortzen laguntzea hezkuntza esparruan. Horretaz gainera, Nafarroara gure komunitateko kide izateko asmoz etortzen diren pertsona guztien harrera prozesua eta arreta hobetzen laguntzea nahi dugu.

Luis Campoy Zueco

Hezkuntza kontseilaria

AURKIBIDEA

- 1. Ikasleak eskolatzeko prozedura**
- 2. Nafarroako hezkuntza sistema**
- 3. Berdintasuna hezkuntzan**
- 4. Hezkuntza zerbitzu osagarriak**
- 5. Gurasoek eta ikasleek ikastetxeetan parte hartzeko organoak**
- 6. Gurasoen eta ikasleen eskubide eta betebeharrak**
- 7. Intereseko helbide eta telefonoak**

1.- IKASLEAK ESKOLATZEKO PROZEDURA

Nora jo behar dugu ikaspostua eskatzeko?

Eskola adinean dauden seme-alabak dituzten familiek eskubidea dute ikaspostua edozein ikastetxetan eskatzeko (publikoa ala itundua).

Ikastetxe batean lehendabizikoz izena ematen dutenean, ikasleek informazioa eta aholkularitza eska dezakete, honako erakunde hauen bidez:

- **Ikastetxeak**

Onarpen eskabidea eta eskatzen diren agiriak aurkeztu behar dira familiak aukeratutako lehenengo ikastetxean.

Onartu eta baztertuen zerrendak, bai eta matrikula formalizatzeko datak eta betekizunak ere, ikastetxeetan bertan jakitera ematen dira.

Eskabideak aurkezteko bi epe daude:

Ohiko epea: martxo eta apirila bitartean.

Ezohiko epea: iraileko lehenengo egunetan.

Eskolatzeko epeak eta betekizunak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen dira.

- **Tokian tokiko eskolatzeko batzordeak**

Hezkuntza Departamentuak **tokian tokiko eskolatzeko batzordeak** eraketa erraztu du Nafarroako hainbat udalerritan. Udalerrri horietan ikastetxe publikoak eta itunduak daude. Batzordeen helburua da eskatzen duten familiei, bereziki, atzerritarrei, aholkatzea, hezkuntza sistemari eta haien seme-alaben eskolatzeko prozedurari buruzko informazioa emate aldera.

Eskolatzeko proposamena familien eskaeraren eta udalerriko ikastetxeen ikaspostu aukeren arabera izan da. Proposamenak gurasoen ikastetxea aukeratzeko askatasunean eta ikasle bakoitzaren orekatua erraztean oinarritu behar du.

Tokian tokiko eskolatzeko batzordeek ikaslearen eskolatzeko jarraipena egingo dute. Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuaren mende eta harekin koordinatuta daude, eta honako udalerrri hauetan eratu dira:

TOKIAN TOKIKO ESKOLATZE BATZORDEAK

Udalerrria	Udaleko telefonoa	E-posta
BARAÑAIN	948 286310	eibanez@baranain.com
BURLATA	948 147354	oficinainmigracion@burlada.animsa.es
ELIZONDO	948 580006	depositari@baztan.animsa.es
LIZARRA	948 548200	ssbestella@infolocal.org
LODOSA	948 693032	lodosa.ssbases@animsa.es
MUTILOABEITI	948 244946	ssbaranguren@infolocal.org
ZANGOZA	948 870005	loli@ssb.e.telefonica.net

TAFALLA	948 701811	iolcoz@tafalla.animsa.es
TUTERA	948 826751	asistentesocial@tudela.com
ATARRABIA	948 130734	ssbvillava@infolocal.org

- **Eskolatze Batzorde Nagusia**

Erakunde horrek tokian tokiko eskolatzeen eta ikastetxe publiko eta itunduen bidez jasotzen diren eskolatze datuak biltzen ditu.

Nafarroako ikasleen eskolatzea koordinatzen du eta bere mende dago.

Edozein familiak bere seme-alaba ikastetxe publiko ala itundu batean inskribatzeko eskubidea urratua sentitzen badu, bere herriko tokian tokiko eskolatze batzordeari edo Hezkuntza Departamentuko Eskolatze Batzorde Nagusiari jakinarazi beharko dio, telefono honetara deituta: 848 426977.

2.- NAFARROAKO HEZKUNTZA SISTEMA

Espanian derrigorrezko eskolatzea 16 urte arte da. Adin horretatik aitzina, ikasleak erabakitzen du derrigorrezkoaren ondoko irakaskuntzan jarraitu ala lan munduan sartu nahi duen.

Derrigorrezko eta derrigorrezkoaren ondoko irakaskuntzak ikastetxe publikoetan zein itunduetan ematen dira.

Derrigorrezko eta derrigorrezkoaren ondoko irakaskuntzak doakoak dira Nafarroako ikastetxe publiko zein itundu guztietan.

Nafarroan, euskararen irakaskuntza eremu geografikoen eta Euskararen Legeak ezarritako hizkuntza ereduaren arabera antolatzen da.

Hizkuntza ereduak

G eredia: irakaskuntza gaztelaniaz da.

A eredia: irakaskuntza gaztelaniaz da eta euskara ikasgaia da.

B eredia: ikasgaiak euskaraz eta gaztelaniaz irakasten dira.

D eredia: irakaskuntza euskaraz da eta gaztelania hizkuntza eta literatura ikasgaia da.

Eremu euskaldunean ikasleak eredu hauen artean aukera dezake: A, B eta D.


Eremu mistoan ikasleak eredu hauen artean aukera dezake: A, B, D eta G.

Eremu ez euskaldunean ikasleak eredu hauen artean aukera dezake: A eta G.

Ikasle bat ikastetxe batean izena ematen duen unean, eskabide orrian adierazi behar da zein den aukeratu duen hizkuntza eredia.

Hizkuntza eredia berbera izanen da etapa osoan. Dena dela, etapa amaitu baino lehen eredia aldatzeko eskatzen ahal da. Eskaera ezarritako prozedurari jarraikiz onartu edo ukatuko da.

Eremu euskaldunean ikasle guztiek dute euskal hizkuntza ikasgaia. Bertan bizi ez direla frogatzen duten ikasleek ikasgai hori kentzeko eskatzen ahal dute.



• 0-3 urte arteko hezkuntza

Boluntarioa da eta familiek hileroko kuota bat ordaintzen dute, haien diru-sarrerak kontuan hartuta.

Iruñean, argibideak nahi izanez gero, hona jo dezakezu:

- Iruñeko Udalaren Haur Eskolak. Oliveto kondearen kalea, 4, 2. ezk.. Telefonoak: 948 221101 eta 948 221103.
- Nafarroako Gobernuko Gizarte Ongizatearen Institutua. González Tablas kalea, z.g.. Telefonoa: 848 426900.

Nafarroako gainerako udalerrietan, tokian tokiko Udalaren edo haur eskolaren bidez lor daiteke informazioa.

• 3-6 urte arteko hezkuntza (Haur Hezkuntza)

Boluntarioa da eta bere helburua haurrei fisikoki, afektiboki, sozialki eta intelektualki garatzen laguntzea da.

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko eta itunduetan ematen da.

Nafarroan, Haur Hezkuntzako eskolatzea % 100 da, hiru urtetik aitzina.

• 6-12 urte arteko hezkuntza (Lehen Hezkuntza)

Sei ikasturte akademikoz osatzen da eta modu arruntean emanen dira seitik hamabi urtera bitarte.

Eta horretako hezkuntza ekintza ikasleen esperientziak eta ikaskuntzak osatzen saiatuko da eta haien lan erritmoetara moldatuko da.

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko eta itunduetan ematen da.

- **12-16 urte arteko hezkuntza (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza)**

Lau ikasturtez osatzen da eta modu arruntean emanen dira hamabitik hamasei urtera bitarte.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan arreta berezia jarriko zaie ikasleen hezkuntza orientazioari, bai eta orientazio profesionalari ere.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu tituluari esker, ikasleak Batxilergoan, erdi mailako Lanbide Heziketan eta lan munduan sartzeko ahalko dira.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza egin eta titulurik lortzen ez duten ikasleek ikasten eman dituzten urteak adierazten dituen eskola ziurtagiri bat jasoko dute, eta ikasten jarraitzen ahalko dute Lanbide Lantegietan edo Lanbide Hastapeneko Programetan.

Institutu eta bigarren hezkuntzako ikastetxe publiko eta itunduetan ematen dira.

- **Derrigorrezkoaren ondoko hezkuntza: Batxilergoa eta Lanbide Heziketa**

Batxilergoa

Horren helburua da ikasleei prestakuntza, adimen eta giza heldutasuna, eta haien zeregin sozialak garatzea eta bizi aktiboan sartzeko ahalbidetzen dieten ezagutzak eta gaitasunak ematea. Halaber, ikasleak goi mailako hezkuntzan sartzeko prestatuko ditu.

Bi ikasturtez osatzen da eta modalitate ezberdinetan garatuko da.

Batxilergoa ebaluazio positiboarekin amaituz gero, goi mailako heziketa zikloak eta unibertsitate ikasketak egiteko aukera dago.

Bigarren hezkuntzako institutuetan ematen da.

Erdi eta goi mailako Lanbide Heziketa

Horien helburuak ikasleak lanbide esparru baterako prestatzea eta haien garapen pertsonalean eta hiritartasun demokratikoa gauzatzean laguntzea dira.

Hezkuntza zikloak erdi eta goi mailakoak izanen dira.

Erdi mailako heziketa zikloa amaitu ostean, ikasleek **Teknikari** titulua eskuratu eta lan munduan, Batxilergoan edo, sarrera proba baten bidez, goi mailako zikloetan sartzeko ahal dira.

Goi mailako heziketa zikloa amaitu ostean, ikasleek **Goi Mailako Teknikari** titulua eskuratu eta lan munduan eta zenbait unibertsitate ikasketetan sartzeko ahal dira.

• **Arte ikasketak**

Horien helburua ikasleei etorkizuneko musikako, dantzako, arte dramatikoko, arte plastikoko eta diseinuko profesionalen arte prestakuntza ematea da.

Arte ikasketetan sartzeko, sarrera proba espezifiko bat gainditu behar da.

Musika edo dantza eskoletan arautu gabeko irakaskuntzak ematen dira. Horiek egin eta gero, ez da titulu ofizialik lortzen.

Musika kontserbatorioetan **Titulu Profesionala** lortzen da, erdi maila amaitzean. Goi maila amaitzean, dagokion espezialitateko **Goi Mailako Titulua** lortzen da. Azken titulu hori lizentziatu tituluaren baliokide da ondorio guztietarako.

Arte Plastikoak eta Diseinua erdi eta goi mailako heziketa zikloetan antolatzen dira. Eta, Lanbide Heziketan gertatzen den bezala, horiek amaitzean **Teknikari** eta **Goi Mailako Teknikari** tituluak lortzen dira.

- “Pablo Sarasate” Musika Kontserbatorio Profesionala
Tel.: 948 206680
Kale Nagusia, 65
31001 Iruña
cm.pablosarasate@pnte.cfnavarra.es
- Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioa
Tel.: 948 291211
Agoitz k., z.g.
31004 Iruña
csmnavar@pnte.cfnavarra.es
- Musika eta dantza eskolak
Argibideak ikastetxeetan bertan edo tokian tokiko udaletan

• **Hizkuntzen irakaskuntza**

Hizkuntza irakaskuntzen helburua ikasleak hizkuntza ezberdinak behar bezala erabiltzen gaitzea da, eta maila hauetan antolatzen dira: oinarrizkoa, erdi mailakoa eta aurreratua.

Hizkuntza eskola ofizialek erdi maila eta maila aurreratua emanen dituzte.

HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALAK

IRUÑA
Tel.: 948 206343
Compañía k., 6
31001 Iruña
eipamplo@pnte.cfnavarra.es
www.pnte.cfnavarra.es/eoip/

IRUÑA
Urrutikoa
Sario eraikina
Taxoareko errepidea, z.g.
Tel.: 948 291980
eidistan@pnte.cfnavarra.es
www.pnte.cfnavarra.es/idiomas.distancia/

TUTERA
Tel.: 948 848095
Magallón k., 10
31500 Tuter
eitudela@pnte.cfnavarra.es
www.pnte.cfnavarra.es/eitudela/

- **Helduen hezkuntza**

Horren helburuak bi dira: alde batetik, helduei ezagutzak eta gaitasunak lortzeko, eguneratzeko, osatzeko edo zabaltzeko aukera ematea, haiek pertsonalki eta profesionalki garatze aldera; eta, beste alde batetik, Oinarrizko Heziketa eta Derrigorrezkoaren ondoko irakaskuntzak ematea, betiere haien baldintzak eta beharrak kontuan hartuta.

Salbuespenez, 18 urtetik gorakoez gain, 16 urtetik gorakoek ere jasotzen ahalko dute irakaskuntza hori, baldin eta hala eskatzen badute eta ikastetxeetara arautegi arruntean joaterik ez badute.

Argibideetarako ikastetxe hauetara jotzen ahal duzue:

HELDUENTZAKO IKASTETXEAK

IRUÑA
José María Iribarren ikastetxea
(Oinarrizko Hezkuntza)
Tel.: 948 198658/59
Bartolomé de Carranza k., 5
31008 Iruña
cebairib@pnte.cfnavarra.es

IRUÑA
Félix Urabayen Helduentzako BHI
(Bigarren Hezkuntza eta Urrutiko Hezkuntza)
Tel.: 948 199571
Bartolomé de Carranza k., 5
31008 Iruña
iesnapa@pnte.cfnavarra.es

TUTERA
Helduentzako ikastetxea
(Oinarrizko Hezkuntza)
Tel.: 948 848096
San Juan plaza, 1, behe
31500 Tuter
cebatude@pnte.cfnavarra.es

TAFALLAKO ESKUALDEA
San Isidro k., z.g.
Tel.: 948 703470
31300 Tafalla
cebatafa@pnte.cfnavarra.es

LIZARRAKO ESKUALDEA
Remontival k., 7
Tel.: 948 556400
31200 Lizarra
cebaeste@pnte.cfnavarra.es

SAKANA
Santo Cristo de Otadía plaza, 21
Tel.: 948 563038
31800 Altsasu
ceba.alsasua@pnte.cfnavarra.es

ZANGOZAKO ESKUALDEA
Kale Nagusia, 21
Tel.: 948 338139
31420 Urrotz Hiria
ceba.sangusa@pnte.cfnavarra.es

UHARTE
Zubiarte Euskaltegia (euskara ikasi nahi duten ikasleentzako)
Tel.: 948 361091
Mokarte Parkea k., z.g.
31620 Uharte
euszubia@pnte.cfnavarra.es

3.- BERDINTASUNA HEZKUNTZAN

Hezkuntza laguntzako premia berezia duten ikasleak

Administrazioari dagokio eskolatze erregularra bermatu eta gurasoen edo tutoreen parte-hartzea ziurtatzea ikasle horien eskolatzeari eta hezkuntza prozesuei eragiten dieten erabakietan.

Ikasle horien eskolatzeta normalizazio eta integratze printzipioetan oinarrituko da, eta baztertuak izanen ez direla eta hezkuntza sisteman sartzeko eta bertan egoteko benetako berdintasuna izanen dutela ziurtatuko du.

Argibideetarako eta orientaziorako Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentrorra (NHBBZ) jotzen ahal duzue: Pedro I.a k., 27, Iruña; tel.: 948 198638.

4.- HEZKUNTZA ZERBITZU OSAGARRIAK

- **Ikasteko bekak eta laguntzak**

Laguntza deialdiak argitaratzen dira, liburuak, garraioa eta jantokia ordaintzeko, bai eta ikaskuntzan laguntzeko ere, hezkuntza laguntzako premia bereziak dituzten ikasleen kasuan.

Eskabideak ikasleak ikasten duen ikastetxean aurkeztu behar dira.

Argibideetarako: ikastetxeak eta Hezkuntza Departamentua (Santo Domingo k., 1; tel: 848 426538).

- **Laguntza osagarriak**

Diru-laguntzak ematen dira, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren deialdien eta ikastetxeen bidez, egoera sozioekonomiko ahulean dauden ikasleei laguntzeko. Laguntzok jarduerak egiteko, ikasleentzako ekipamendurako eta ikasmaterialerako dira.

- **Jantokia**

Zenbait ikastetxe publiko eta itunduk eskaintzen duten zerbitzu osagarria da.

Ikastetxe publikoetan Derrigorrezko Hezkuntza ikasten duten ikasleek eskubidea dute zerbitzu osagarri hori erabiltzeko, Nafarroako Gobernuak ezarritako eskola eremuen arabera dagokien ikastetxe publikoan eskolatzen badira, betiere ikastetxea ikaslearen ohiko bizitokitik kanpo badago.

Egoera sozioekonomiko ahulean dauden ikasleek laguntza hori dagokien Udaleko Gizarte Zerbitzuen bidez eskatzeko eskubidea dute, baita ere.

Ikastetxe itunduetan ikasten duten ikasleek laguntza hori eskatzen ahal dute, baldin eta egoera sozioekonomiko ahulean badaude.

Edozein kasutan, laguntzok ikasleek ikasten duten ikastetxeetan bertan eskatuko dira.

- **Garraioa**

Ikastetxe publikoetan Derrigorrezko Hezkuntza ikasten duten ikasleek eskubidea dute zerbitzu osagarri hori erabiltzeko, Nafarroako Gobernuak ezarritako eskola eremuen arabera dagokien ikastetxe publikoan eskolatzen badira, betiere ikastetxea ikaslearen ohiko bizitokitik kanpo badago.

Beste laguntza deialdi bat dago, baita ere, aukeratutako hizkuntza eredua dela-eta (euskarazko irakaskuntza A, B edo D ereduetan), ikastetxera joateko bost kilometro edo gehiago egin behar dituzten ikasleentzat.

Laguntzok ikasleek ikasten duten ikastetxe publikoetan bertan eskatuko dira.

- **Tituluen homologazioa**

Ez da ikasketak baliozkotzeko inolako izapiderik egin behar, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan sartzeko.

Derrigorrezkoaren ondoko ikasketen kasuan, baliozkotze izapideak Hezkuntza eta Zientzi Ministerioaren Ordezkaritzan egin behar dira (Iturralde y Suit k., 13; tel: 948 979360).

5.- GURASOEK ETA IKASLEEK ZENTROETAN PARTE HARTZEKO ORGANOAK

- **Eskola Kontseilua**

Ikastetxeko hezkuntza komunitatea osatzen duten sektoreen partaidetzarako organo eskuduna da. Hezkuntza komunitatearen barnean dauden guraso eta ikasle guztiak hautagarriak eta hautatuak izan daitezke.

Besteak beste, funtzio hauek ditu: eskola jarduera osagarriak programatu eta garatzea; bisitak eta bidaiak; jantokiak; eta udalekuak. Horretaz gainera, ikastetxearen kultur, kirol eta olgeta jardueretan parte hartzeko irizpideak ezartzen ditu.

Ikasleak ikastetxe publikoetan onartzeko prozesuetan esku hartzen du.

- **Ikasleen gurasoen elkarteak**

Gurasoek askatasun osoa dute ikastetxeetan eratzten ahal diren elkarten kide izateko.

Hauek dira gurasoen elkarten helburuak, besteak beste: gurasoen eta ikastetxearen arteko harremanak hobetzea; gurasoen elkarten arteko lankidetzaren erraztea; ikastetxearekin eta erakunde publikoekin lankidetzaren aritzea; eta hezkuntza, kultur eta kirol jarduerak antolatzea, ikasleen eta gurasoen mesederako.

Ikasleen gurasoen elkarteek ikastetxeetako lokalak erabiltzen ahalko dituzte, berezkoak dituzten jarduerak egiteko.

6.- GURASOEN ETA IKASLEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

Ikasleen eskubide eta betebeharren laburpena

Ikasle guztiak eskubide hauek dituzte, besteak beste:

- Haien nortasuna osoki garatzen laguntzen duen heziketa integrala jasotzea.
- Beren kontzientziaren askatasuna, uste erlijioso eta moralak, eta duintasun pertsonala errespetatzea.
- Doako derrigorrezko hezkuntza eta haien hezkuntza premiei erantzuteko behar dituzten laguntzak jasotzea.
- Eskola eta lanbide orientazioa jasotzea.

Halaber, betebeharrak hauek dituzte, besteak beste:

- Prestakuntza jardueretan parte hartzea.
- Hezkuntza komunitateko kide guztiak errespetatzea.
- Irakasleen orientazioei jarraitzea.
- Eskolara garaiz joatea.
- Ikastetxeko instalazioak eta ikasmateriala zaintzea.
- Ikastetxeko antolaketa, bizikidetzaren eta diziplina arauak errespetatzea.

Ikastetxeek ikasleen eskubide eta betebeharrak guztien zerrenda banatuko dute.

Familien eskubide eta betebeharrak

Familiek eskubide hauek dituzte, haien seme-alaben heziketari dagokionez:

- Haien seme-alabek hezkuntza jasotzea kalitate berme handienekin, Legeak ezarritako esparruaren barnean.
- Ikastetxea libreki aukeratzea.
- Haien seme-alabek euren uste erlijioso eta moralekin bat datorren heziketa jasotzea.
- Haien seme-alaben ikaskuntza eta integrazio prozesuei buruzko informazioa jasotzea.
- Ikastetxearen kontrol eta kudeaketan parte hartzea, legeetan ezarritakoari jarraituz.
- Haien seme-alaben orientazio akademiko eta profesionalean eragina duten erabakietan esku hartzea.

Halaber, betebeharrak hauek dituzte:

- Haien seme-alabek derrigorrezko hezkuntza mailak jasotzeko eta eskolara erregularitasunez joateko behar diren neurriak hartzea edo horretarako behar duten laguntza eskatzea.

- Haien seme-alabak bultzatzea dagozkien ikasketa jarduerak egiteko.
- Haien seme-alabei hezkuntza prozesuetan laguntzea, irakasleekin eta ikastetxeekin bat.
- Ikastetxeak ezarritako arauak eta hezkuntza komunitateko kide guztiak errespetatzea sustatzea.

7.- INTERESEKO HELBIDE ETA TELEFONOAK

Hezkuntza Departamentua

Santo Domingo k., 1; 31001 Iruña www.pnte.cfnavarra.es

- Ikasle eta Ikasleen Gurasoentzako Argibide eta Aholku Bulegoa. Tel: 848 426617
- Eskolatze Bulegoa. Tel: 848 426977
- Beken Bulegoa. Tel: 848 426538
- Kultura-Aniztasunaren eta Immigrazioaren Atala. Tel.: 848 426618/04
- Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroa (NHBBZ). Tel: 948 198638

Hezkuntza eta Zientzi Ministerioa

Iturralde y Suit k., 13; 31071 Iruña

- Hezkuntzaren Goi Ikuskaritza. Tel: 948 979360

Udaletako Gizarte Zerbitzuak

IRUÑA

Alde Zaharreko Auzo Unitatea
Tel.: 948 212649/228746
Jarauta k., 43 behea
31001 Iruña

Txantreako Auzo Unitatea
Tel.: 948 132040/133279
Beorlegui k., 46
31015 Iruña

Etxabakoitzeko Auzo Unitatea
Tel.: 948 254359
Urdanoz multzoa, 7
31009 Iruña

Zabalguneko Auzo Unitatea
Tel.: 948 230805/235361
Aita Calatayud k., 4 behea
31003 Iruña

Ermitagañako Auzo Unitatea
Tel.: 948 255354
Ermitagaña k., 42-44 behea
31008 Iruña

Iturramako Auzo Unitatea
Tel.: 948 276305
Serafín Olave k., 6 behea
31007 Iruña

Mendillorriko Auzo Unitatea
Tel.: 948 160047/161900
Ardatz kontzejuaren k., 4 behea C
31016 Iruña

Milagrosako Auzo Unitatea
Tel.: 948 242717/247685
Irati ibaia k., 9 atzeko aldea
31005 Iruña

Arrotxapeko Auzo Unitatea
Tel.: 948 132157/86
Marcelo Celayeta k., 51
31014 Iruña

Sanduzelaiko Auzo Unitatea
Tel.: 948 127487/127133
Sanduzelai k., 11
31012 Iruña

Donibaneko Auzo Unitatea
Tel.: 948 251012/174324
Tulebrasko monasterioa, 3 behea
31011 Iruña

BESTE UDALERRI BATZUK

ALTSASU
Tel.: 948 467662
Bakea k., 7
31800 Altsasu

DONEZTEBE
Tel.: 948 451746
Mercaderes k., 17 behea
31740 Doneztebe

TUTERA
Tel.: 948 826761/51
Díaz Bravo k., 26
31500 Tutera

LIZARRA
Tel.: 948 548223
Beorlegui k., 46
31200 Lizarra

TAFALLA
Tel.: 948 701811
Nafarroa plaza, 5
31300 Tafalla

Atzerritarrei esku-hartze programak eskaintzen dizkieten gizarte entitateak

ANAFE-CITE

anafe@anafe-cite.org
Zerbitzu hauek egiten ditu:

- Aholkularitza juridikoa eta soziala
- Enplegua (lan aholkularitza, enplegu poltsa)
- Lanbide aurreko prestakuntza eta lanerako prestakuntza
- Informazioa eta sentsibilizazioa
- Ikerketa
- Kulturen arteko bitartekotza
- Dokumentazio izapideak

IRUÑA

Marcelo Celayeta etorb., 75 A3 2.a
(lehenago Matesa)

31014 Iruña
Tel.: 948 136078

TUTERA

Ugarte D^a María k., 12
31500 Tutera

Tel.: 948 826712

Zerbitzu ibiltaria Lizarra, Azkoien, San Adrian, Zangoza eta Tafalla udalerrietarako, CC.OO.en egoitzetan.

CARITAS NAFARROA

Zerbitzu hauek egiten ditu:

- Eskola laguntza
- Laguntza juridiko eta soziala
- Enplegu poltsa
- Prestakuntza
- Gizarte gaitasunak
- Familiaren jarraipena
- Dokumentazio izapideak

IRUÑA

San Anton k., 8 1.a
31001 Iruña

Tel.: 948 225909

TUTERA

Alberto Pelairia k., 2 behea
31500 Tutera

Tel.: 948 826856

S.O.S. ARRAZAKERIA

Zerbitzu hauek egiten ditu:

- Kulturen arteko jarduerak
- Etorkinentzako aholkularitza
- Bazterkeria eta arrazakeria egoerak salatzeko bulegoa

Nafarroako egoitza
Zapateria k., 31 1.a
31001 Iruña
Tel.: 948 211521

GURUTZE GORRIA

cigea@cuzroja.es

Zerbitzu hauek egiten ditu:

- Laguntza juridiko, sozial eta psikologikoa
- Gaztelaniazko ikastaroak
- Prestakuntza
- Arazo sozialak dituzten emakume etorkinentzako harrera pisuak
- Enplegu plana
- Etorkinei laguntzeko programa
- Errefuxiatuei laguntzeko programa
- Etorkinak, nahi badute, beren herrietara itzultzeko programak
- Osasunaren sustapena, emakume etorkinentzat

IRUÑA

Leire k., 6
31002 Iruña
Tel.: 948 206570/206360

TUTERA

Iruñeko etorb., 7
31500 Tuterak
Tel.: 948 827450

SEI (Kulturen arteko Hezkuntza Zerbitzua)

ongsei@yahoo.es

Zerbitzu hauek egiten ditu:

- Nerabe etorkinen eta haien familien harrera eta laguntza
- Kulturen arteko jarduerak
- Harrera kulturaren ezagutza
- Gizarte gaitasunen garapena
- Boluntarioen prestakuntza
- Baliabide arautuetan sartzea
- Gizarte eta hezkuntza esku-hartzea

IRUÑA

San Fermín k., 18 1.a
31003 Iruña
Tel.: 948 239739

UGT

Zerbitzu hauek egiten ditu:

- Laguntza juridiko-soziala
- Lan munduan sartzea
- Lehenengo harrera
- Sentsibilizazioa
- Dokumentazio izapideak

IRUÑA

Zaragozako etorb., 12 1.a
31003 Iruña
Tel.: 948 291281

TUTERA

Cuesta de la Estación plaza, 3
31500 Tuterak
Tel.: 948 820289

Zerbitzua egiten du, baita ere, Altsasun, Azagran, Caparroson, Lizarran, Erriberrin, Azkoienen, San Adrianen, Zangozan eta Tafallan

Lan eta Gizarte Aferen Eremu Funtzionala – Administrazio Nagusia (atzerritarren bulegoa)

Baionako etorb., 2 31011 Iruña

- Europako Batasunetik kanpoko herrialdeentzako egoitza txartela
Argibideak eta alde zuzeneko hitzordua 948 979330/33 telefonoetan

Enplegua

Nafarroako Enplegu Zerbitzua

Arcadio M^a Larraona k., 1 2. eta 3. solairuak

31008 Iruña

Tel.: 848 424400

“Iturrondo” lanerako prestakuntzarako zentroa

Atarrabiako etorb., z.g.

31600 Burlata

Tel.: 948 136644

Infolocal

Tel.: 012

ENPLEGU BULEGOAK

IRUÑA

Bigarren Zabalgunea

Agoitz k., 6

31004 Iruña

Tel.: 948 151909

Vadoluengo

Vadoluengoko monasterioaren k., 4

31008 Iruña

Tel.: 948 199523/197181

Arrotxapea

Errotazar k., 9-11-13

31014 Iruña

Tel.: 948 132850/86

TUTERA

María Ugarte andrea k., z.g.

31500 Tuter

Tel.: 948 821870/74

TAFALLA

Calatayud pasealekua, 19

31300 Tafalla

Tel.: 948 700400/704561

LIZARRA

Aralar Mendia plaza, 2 behe

31200 Lizarra

Tel.: 948 550712/556657

ALTSASU

Garcia Ximénez, 3

31800 Altsasu

Tel.: 948 562754

DONEZTEBE

Leitzako errepidea, 1

31740 Doneztebe

Tel.: 948 450309

AGOITZ

Toki Eder k., z.g.

31430 Agoitz

Tel.: 948 336179

LODOSA

Calvario k., 1

31590 Lodosa

Tel.: 948 693408/662306

Nafarroako Gobernuaren Delegazioa

Telefonogunea: 948 979000

Herritarrentzako argibideak: 948 979100

Atzerritartasuna eta Dokumentazioa: 948 299700

Atzerritarren bulegoa – Pasaporteak: 948 231769. Bergamín k., 31, Iruña.

Babes zibila: Larrialdiak eta Foruzaingoa: Tel.: 112

